


## 1. IBAIZABAL IKASTOLA EGUN

### IBAIZABALEN, EKIALDEKO BIZKAITARRON IKASTOLAN, POZIK !!

*Konfiantzazko irakaskuntza, lehenengo pertsonan.*

Milaka dira Bizkaiko herri ezberdinetatik urteotan pasatutako ikasleak. Esan bezala, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta profesionaltasun ziurtagiriak zerbitzuekin uztartzen dituen eremu anitza da Ibaizabal. Errealitate berezia, jarduera desberdinek (gimnasioa, aterpetxea eta ostatua) bat egiten baitute, eskaintza akademikoarekin. Aniztasunak eta jatorri ezberdinek aberasten dute leku hau, eta etorkizuneko hiritar euskaldun eta jantziak hezten ditu ezinbestean.

### jatorriak, herrika



Bizitzari, indiferentziaz behintzat begiratuko ez dioten euskal herritarrak. Hona hemen norantza horretan eragiten duten gako batzuk:


### **Batxilergoa: erabakiak hartzeko tarte hori**

Erabaki garrantzitsuak hartu behar dira batxilergoan. Horregatik, batxilergoa hasten duen lehenengo egunetik, bere norantza akademikoaren gainean kontrola ikasleak eraman behar duela uste dugu, erabaki garrantzitsuak autonomiaz eta heldutasunez har ditzan. Bidean, ikaslea babestuta eta indartsu sentitzeko helbururako lana egingo dugu guk, gertu gertutik.




## zergatik ib?

- Ikastola txikia / Familia giroa
- Harreman estua langile, guraso, ikasle
- Errefortzuen sistema
- Tutorea bidelagun
- Orientazioa eta babesa
- Marko pedagogiko berria uztartzen
- Eleaniztasuna
- Ikaslea erdigunean
- Eskolaz kanpoko ekintzak/Zerbitzuak
- Emaidza Akademiko onak



Izan ere, ikaslea ondo sentitzean tematuta gaude. Horretarako, Ibaizabalen ikaslearen jarraipena berezia da: Irakasle guztiak tutore, aholkulari dira, bakoitzak ikasle kopuru txikia izanik. Familiek, irakasleek eta ikasleek elkarlanean funtzionatzen dute. Ondorioz, ikasle bakoitzak, bere bidelagun izango den irakaslea izango du erreferentzia legez lehenengo egunetik. Hona hemen tutoritza planan izan duen harrera egokia, gero eta tutore hurbilagoak ditugu!




# famili giroko ikastola txikia!

- 200 ikasle / 20 irakasle...




Eskainta pedagogikoa zein irakaslegoa oso gertukoa da, eta aldaketa pedagogiko metodologiko berritzaileak etengabe barnesartzen ari da, ikasgaien arteko loturak gero eta gehiago uztartuz eta koordinatuz. Hor dago etorkizuna, erronken irakaskuntzan, materien uztarketa modu koherentean, sinplifikatuan egitean, halebria. Eta hor dugu Finlandiako eredu aintzindaria, ikasgaiak desagertaraziko dituen lehen herrialdea izanik, pedagogian aurreratuenetakoa, bide horretan kokatuko gaitu EHIK eta Huheziren aholkularitzari esker:




Horretaz gain, ikasgai desberdinetako prozedura eta edukiak indartzeko **errefortzu sistema** jartzen dugu Ibaizabalen ikasleen eskura. Ikasleek errefortzu saioak eska ditzakete beraien irakasleekin, ikasturtean zehar hutsuneak osatzen

joan ahal izateko eta hezkuntza ekitatea mantenduz, ondo doazen eta aurrera ateratzeko laguntza duten ikasle horiei bultzada emateko asmoz:



Neurri guzti hauek bere fruituak ematen dituzte. 34 ikaslerekin hasi zen ikastola, eta gaur egun 300 ikasle baino gehiagoko errealitate bihurtu da. Asebetetze zein emaitza akademiko oso onak agerian daude eta hemendik pasatutako ikasleak dira horren adierazle nagusi.

## matrikulen bilakaera



Matrikularen goranzko joerak epe ertainean jarraitu egingo duela aurreikusten denez, laugarren lerroa ere zabaltu behar izan dugu. Honi erantzuteko 1.000 m<sup>2</sup>ko eraikin berria inauguratu genuen 2013ko irailean, Durangoko erdigunetik 5 minutura dagoen Tabira auzo zoragarrian.






## **Orientazioaren garrantzia**

Ikasketa prozesua ikaslearengandik abiatzen da. Norberaren asmoak identifikatu eta hauek lortzeko eskuratu beharreko lanabesak lor ditzaten lan egiten uzten diegu. Eta guzti hori, orientazio egoki batekin gauzatzen da. Aukera akademiko zein laboralen gainean informazio osoa jasotzen dutela ziurtatuko dugu.

Horretarako, Ikasle ohien eta inguruko Unibertsitateetako adituen testigantzak ekartzen ditugu, Unibertsitate eta ikastetxeetara irteerak eta aurkezpenak edo gure trebakuntza eskaintza teknikoak jartzen ditugu eskura. Helburua argia da: Ikaslea %100ean trebatzea hemendik ateratzean dagokion bidea ondo egin dezan. Ikasleak akademikoki zein sozialki jantzita eta kompetente prestatzea, alegia.







### Lanbide heziketa arautu (Haur Hezkuntza) eta ez arautua

Lanbide heziketaren alorrean, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa eskaintzen da Ibaizabalen. Ziklo honek hartzaindegietako teknikari lana egiteko zein Unibertsitatean ikasteko aukera zabaltzen du. Horretaz gain, ikastolaren izaera profesional eta teknikoa sakondu duen Hobetuz eta Lanbideko prestakuntza eskaintza zabala du Ibaizabalek.



### **Ibaizabal+ elkarreragineko espazioa**

Ezin dugu hezkuntza ulertu barneko eremu isolatua bezala. Hezkuntzatik abiatzen dugu gure ekarpena, baina aldi berean eragileak gara. Euskalgintzan, herrigintzan, kulturgintzan...euskal nortasuna oinarri izanik, mundura zabalik dagoen ikuspegia lantzen dugu. Jendartearen erronka eta ametsen parte izan nahi dugu. Ikastola soil batetik haruntzago joan nahi dugu, eta gure ingurua eraldatu.

Kooperatiban parte hartzea eta Aliantzak  
(EHIK, ERKIDE, Euskalgintza...)



Ikastolek 800.000 euro banatu dituzte zortzi proiektuentzat



14.000 SASKI, 175.000 € NAFARROA  
HEGOALDEKO EUSKALGINTZARENTZAT



Antzerkia, mekanografia ikastaroak, eleaniztasunaren adierazle den Oxford azterketen eremu ofiziala, Irakurrixu ikasleen aldizkaria... eskolaz kanpokoak ere anitzak ditugu ikusten duzuenez:

ibat3

ib ibaizabal  
IKASTOLA

OXFORD  
TEST OF  
ENGLISH

OXFORD  
UNIVERSITY PRESS

mekanografia  
On line ikastaroak


azterketa  
Eremu

irteerak

gelaz kanpoken arrakasta!



Irakurrixu



hitzaldiak



Katalin Minerren bisita

antzerkia



Ibaizabaletik, antzerkira



San Agustin antzokia ezagutzen Eneko Sagardoyrekin

Zentzu horretan, ezinbestekoa deritzogu ikaslea bera ere erabaki eta eztabaida gunetan egotea. Ikasle kontseiluan proposamenak eginez, iritzi eta proposamenak Irakurrixu aldizkarian plazaratuz edo tertulia eta eztabaida foroetan parte hartuz... Ikastola auzolanean ulertzen dugu nahitaez. Beraz, gutariko bakoitzak bere ekarpena egin dezakegu Ibaizabal ikastolan. Izan ere, kooperatiba gara, gurasoek eta ikasleek zuzeneko esku hartzea dutelarik ikastolako erabaki nagusietan.



Jaiak

Gaztainerre eguna



ateneoak  
eztabaida foro gisa



belarretan ere eman daitezke klaseak!


# Ikastola: auzolanean gara



Eta ezin ahaztu ikastolaren zerbitzuak; taberna, sozializazio toki bezala, autobus zerbitzu zabala herri guztietatik, jantoki zerbitzu baloratua zein Errota ostu-aterpetxea eta Kirolerrota gimnasioa, ikasketak kirolarekin uztartzeko aproposak:








Guzti honen ispilu dira **gure emaitzak**. Alde batetik, asebetetze emaitzak ditugu, hurbiltasun, zerbitzu eta Ibaizabaleko eremu bereziak ikaslea POZIK sentiarazten du. Irakasle eta giroa orokorrean zortzi batekin baloratzen dira:



irakasleekiko (bakoitzeko inkestak)  
ikastolarekiko asebetetze orokorra



**emaitzek  
diote...**

## batxilergoa gainditutakoen kopurua



**1. maila: % 94**


**2. maila: % 100**

## promozio datuak


	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
<b>1. maila</b>	97,56%	92,39%	93,75%	94,64%
<b>2. maila</b>	96,81%	98,80%	100%	100,00%

Eta gure promozio eta emaitza akademikoak ikasturtero EAE eta ikastolen emaitzen gainera kokatzen dira. Agerian dago Selektibitatea prestatzeko saioren eragina zein garrantzitsua den eta batez ere ez ohizko deialdira doazenekin Ibaizabalen egiten den esfortzu berezia. Ekitaltea mantentzen saiatzen den ikastola, halegia:


### Selektibitatea gainditutakoen %



### Probako batzaz besteko nota



### Espedienteko batz besteko nota



Ibaizabal osatzen dugun lantalde txikian oso konziente gara Durangoz haratago kokatu nahi dugun ikastola izan nahi badugu, zerbait berezia eskaini behar diegula hain hurrutitik datozen ikasleei, eta horretan lan eta esfortzu handia egiten dugu denok ikasturtero. Lekeitio, Ondarroa edo hurrunago herrietatik ikasleak etengabe datozkigu, nahiz eta beraien inguruan eskaintza erakargarriak izan, eta hori Ibaizabal ikastolan urte askotan egindako lan eta konpromisoaren seinale da.

Guk argi daukagu eta pozik, harro gaude gure proiektu honekin. Eta berau erakustea gustatzen zaigu, beraz, zuk ere, ezagutu gaitzazu!

Gonbidatuta zaude! Ateak zabalik dituzue gurera etortzeko!



Ibaizabal ikastolako zuzendaritza eta lantaldea

## **ZUZENDARITZA**

\*Zuzendaria: Gaizka Arrizabalaga

\*Batxilergoko ikasketa burua: Iratxe Bernedo

\*Lanbide Heziketako ikasketa burua: Rosa Elizburu

\*Errotako arduraduna: Zorione Alberdi

\*Kirolerrotako arduraduna: Jon Urkiza

## **IRAKASLEAK**

### **Giza zientziak mintegiko irakasleak**

Arantza Idigoras

Iratxe Bernedo

Karlos Rodriguez

Xabier Arrate

Xenki Arizaga

Eneko Larrinaga

### **Hizkuntza mintegiko irakasleak**

Alazne Zarobe

Ana Vidal

Irene Salor

Goiatz Etxeita

Maria Perez

Endika Blanco



## **Zientzia mintegiko irakasleak**

Ane Solagaistua

Egoitz Irure

Matxalen Santos

Ibon Alvarez

Izaskun Dominguez

Jon Urkiza

Samuel Garcia

## **Haur Hezkuntza goi mailako zikloko irakasleak**

Irene Salor

Mireia Delgado

Rosa Elizburu

Iratxe Laburu

Amagoia Santakoloma

## **ERROTAKO LANGILEAK**

Josune Landajuela

Leire Renovales

Martxel Zubia

Mertxe Alzaga

Zorione Alberdi

Gimnasioko arduraduna: Jon Urkiza

Aterpetxeko langileak

## **ZERBITZUETAKO LANGILEAK**

Idazkaria: Mertxe Aldazabal

Garbiketa: Aintzane Aranburu

Ana Madariaga